

## **Gradu Amaierako Lana**

# **ERDI AROKO HIRIGINTZA PROZESUA VILLAFRANCA ETA SEGURA HIRIBILDUETAN**

Egilea: Ane Beguiristain Bueno

Tutorea: Juan Jose Usabiaga Urkola

Artearen Historia

2019-2020 ikasturtea

Artearen Historia eta Musika saila, Letren Fakultatea

## **Aurkibidea**

Laburpena.....	3 orr
Sarrera.....	4 orr
Behe Erdi Aroko Europako hirigintza prozesua.....	5-8 orr
Behe Erdi Aroko Gipuzkoako hirigintza prozesua.....	9-11 orr
Villafranca hiribilduaren hirigintza azterketa.....	12-19 orr
Segura hiribilduaren hirigintza azterketa.....	20-28 orr
Ondorioak.....	29-32 orr
Bibliografia.....	33-34 orr.

## **Laburpena**

Gradu Amaierako lan honetan, Behe Erdi Aroan sortutako Villafranca eta Segura hiribilduak aztertu ditut. Hauen sorrera XIII. mendean eman zen, Gaztelako monarkiak Gipuzkoa lurraldean aurrera eramandako hirigintza prozesua dela-eta.

Prozesu hau ulertzeko, lehendabizi mendebaldeko Europaren hirigintza prozesuaren panorama azaldu dut. Europan XI. mendean izugarrizko aldaketa eman zen, bizitzako esparru guztietan. Honen kausa nagusia hirien sorrera edo beste kasu batzuetan berpiztea izan zen. Gauzak aldatzen zihoazten heinean, hiribilduen sorrera hasi zen. Leku hauen sorreren ondorioz beraz bizitzeko era aldatu zen arlo guztietan: ekonomikoki, sozialki, demografikoki, artistikoki, etab.

Idea orokorrak barneratu ondoren, Gipuzkoaren kasuan zentratu naiz. Lurraldearen testuingurua analizatuz: zeinen parte zen lur hori garai horretan, zertaz bizi ziren bertako biztanleak, zer arrazoi zeuden bertan hiribilduak sortzeko, zergatik zein hain leku apropos eta nola lortu zuten bertan hainbeste hirigintza proiektu aurrera eramatea.

Ondoren, hautatutako bi hiribilduen azterketa egin dut: Villafranca eta Segura. Bi hauek Gipuzkoa hego-ekialdean kokaturik daude, gaur egun, Goierri eskualdeko bi herri dira. Bakoitzaren sorreraren testuingurua aztertu dut, eta nolako morfologia eta hirigintza prozesua izan zuten bere garaian ere.

Azkenik, Europa eta Gipuzkoako ideia orokorrak, eta bi hiribilduen analisia eginez, hauen konparaketa egin dut. Bertan konklusio sendo batzuk ateraz; alde batetik, berdintasun batzuk badaude, baina baita ere beraien arteko ezberdintasunak. Hau guztiarekin beraz, Behe Erdi Aroko hirigintza prozesua dugu, Europatik hasita, Gipuzkoarekin jarraituz bi adibide osatu eta bitxiak aztertuz.

## Sarrera

Burututako lana, alde batetik guztiz bibliografikoa da, hau da, iturri ezberdinak baliotu ondoren Gradu Amaierako lan hau egin dut. Metodologikoki beraz, iturri anitzen hautaketa egin da, ikuskatuz ea interesgarriak suertatzen ziren nere beharretarako. Iturriak eta bibliografia irakurri ondoren, ideia nagusiak hartu eta modu txukun eta argi batean pilatu dira. Kasu honetan, eta azken orrietan ikusten den bezala bibliografia zerrendan nik erabilitako iturriak, artikuloak eta liburuak dira.

Hasiera batean, ez da erreza iturri guzti horiek maneiatzea, asko baitira eta informazio asko da bat-batean. Beraz, orokorretatik bilatzeri ekin nion: Europako kasua, eta gero konkretatuz: Gipuzkoa, Ordizia eta Segura.

Lana aurrera eramateko asko lagundu didan ikerlaria Beatriz Arizaga Bolumburu da. Berak idatzitako liburuak eta artikuloak, oso ondo azaltzen zuten Gipuzkoako hirigintza prozesua nolakoa izan zen XIII eta XIV. mende bitartean. Lanean ere irudiak jarri ditut aztertutako hirigintza prozesua argiagoo izateko.

Bestalde, behin bibliografia pilatuta, metodologiaren bigarren atalera jo dut: landa-lana egitera hain zuzen ere. Horretarako, Segura eta Villafrancako kaleak zeharkatu eta aztertu ditut bertan gaur egun ikusgai dagoen Erdi Aroko hirigintza analizatuz: beraz nuen informazioa eta nire begiek ikusten zutena elkartuz errazagoa izan da XIII. mendeko hiribilduaren osaketa imajinatzea nahiz eta gauza gehienak aldatuta egon. Baina azken finean, gaurko bi herrien erdiguneen hirigintza Erdi Arokoaren ondorio eta bilakaera dira: hiru kale, kasu batean almendra itxura jarraitzen du, eta beste kasuan triangeluarra, etxe blokeak, kale nahiko estuak, etab.

Horrez gain, analizatutako bi herrien museoetara joan naiz, interpretazio guneetara. Ordiziaren kasuan, D'elikatuz zentrorra eta Seguran berriz, Ardixarra Etxera, bertako interpretazio zentroa izateaz gain, XVI. mendeko etxearen itxura hein handi batean mantendu da. Bi zentro hauetara joateak, informazio modu argiagoo batean eta, aldi berean, ezberdinean jasotzeko aukera eman dit.

## **Behe Erdi Aroko Europako hirigintza prozesua**

Erdi Aroaren amaieran, XI. eta XV. mendeen artean, Mendebaldeko Europan hiri-sare antolatu eta aberats bat sortu zen, aurrera eramandako hirigintza prozesu ikaragarriari esker<sup>1</sup>. Eraldaketa hau egiteko arrazoiak anitzak izan ziren; ekonomikoak, sozialak, merkataritzaren garrantzia, gizartearen ikuskera berriak, etab.

Mendebaldeko Europan, XI. mendetik aurrera, hiriak modu sistematikoan sortzen hasi ziren, eta nahiz eta berdinak ez izan, denek ezaugarri batzuk komunean zituzten. Erabilitako antolaera beti arrazionalismoa aplikatuz egingo da, garaiko pentsamendu erlijiosoarekin, teokratiko eta espiritualak zena<sup>2</sup>.

Arrazionalismoarekin batera, hirien sorreren nahiak funtzio sinbolikoa betetzen zuen. Honekin batera, aldaketak emango dira, bai harreman sozialetan eta baita ekonomiaren ikuspuntutik ere<sup>3</sup>. Hiriek ezaugarri komunak zituzten, esate baterako, hiri fundazioen jabetza monarkiei dagokie, eta horretarako hiribildu bat sortzerako garaian lekuaren *hiri-gutuna* sortu behar zuten, eta ondorioz hiritarrek udal autonomiaz gozaten zuten, eskubide eta pribilegioekin. Hauen artean, funtzio politiko-administratibo eta ekonomiko bikoitza zuten.

Beste alde batetik, pribilegioen artean, babestutako leku hesituak edo harresituak edukitzea izango zen<sup>4</sup>. Elementu hau ezinbestekoa zen, hiria etsaiengatik babesteko helburuz. Baina horrez gain, prestigioa ematen dio leku horri, hiribilduaren izaera hain zuzen ere.

---

<sup>1</sup> Corral Lafuente, J.: “Significado y símbolo de la ciudad medieval: elementos semióticos en el mundo urbano de Europa occidental (1350-1550)”. In *Revista de Historia Jerónimo Zurita*, 56. 1987. 131 orr.

<sup>2</sup> Arízaga Bolumburu, B.: *Urbanística Medieval (Guipúzcoa)*. Donostia: Kriselu, 1990. 39 orr.

<sup>3</sup> Corral Lafuente, J.: op. cit., 133 orr.

<sup>4</sup> Ruiz de la Peña, J.I.: “El desarrollo urbano de la periferia norteña castellano-leonesa en la Edad Media (siglos XII-XIV)”. In *Anuario de estudios medievales*, 19.1989. 183 orr.

Erdi Aroko hiria hiru espazioetan sailkatzen da. Alde batetik, espazio bat, publikoa dena, udal boterearen kontrolpean dagoena. Pribatua, biztanleen kontrolpean dagoen espazioa da. Hirugarrena, eklesiastikoa, elizaren kontrolpean dagoena.

Espazio publikoaren barruko elementu ezinbestekoa plaza dugu. Honek gune hoberena zuen, hiribilduaren erdian kokatuta baitzegoen. Gauza anitzetarako erabiltzen zen: komunitatea elkartzeko, botere judizialak gauzatzeko eta batez ere, ekonomiari begira merkatuaren ospakizuna egiten zen hemen<sup>5</sup>.

Publikoa den beste atala kaleak dira. Hiriaren tamaina eta garrantziaren arabera, kale gehiago edo gutxiago aurkitzen ditugu. Normalean, hiru ziren aurkitzen ditugun kaleak, erdikoa zuzenagoa eta zabalagoa zen, eta beste biak aldiz, estuagoak<sup>6</sup>. Hauek, hiriko merkataritza ardatz nagusia suposatzen zuten eta leku batetik beste batera mugitzea ahalbideratzen zuten.

Esparru pribatu eta familiarrari dagokionez, etxe-blokeak elkarren artean zeuden, bata besteari atxikituak, horma berdina jarraituz. Denek fatxadaren estilo berdina jarraitzen zuten, beraz homogeneousuna lortzen zuten eraikin hauek, hiriko paisaia bihurtuz. XIII. mendeko etxeen estruktura eraikitzeke egurra erabiltzen zen, eta adreiluak eta teilatuak egiteko buztina alegia<sup>7</sup>. Denbora igaro ahala materialak hobetzen joan ziren, batez ere, egurraren ondorioz hiribildu asko erre ziren eta hori ekiditea nahi zuten.

Mendebaldeko Europan gertatutako fenomeno hau, nazioaren arabera, era desberdinean eman zen, bakoitzak bere interesak zituzten eta emaitzak ezberdinak izan zituzten, baina denek jarraitu zuten aipatutako hiriaren prototipoa.

---

<sup>5</sup> Corral Lafuente, J: op. cit., 134 orr.

<sup>6</sup> Ibid., 136 orr.

<sup>7</sup> Quesada, M.F.L.: "La vivienda: espacio público y espacio privado en el paisaje urbano medieval". In *La vida cotidiana en la Edad Media: XVIII Semana de estudios Medievales*. Nájera: Instituto de Estudios Riojanos. 1997. 120 orr.

Espainiaren kasuan, Penintsularen iparraldean osatutako erreinu kristauak, Europarekin harremanak izaten hasi ziren XI. mendearen erdialdetik XII. mendera bitartean, hirien sorkuntza emanez<sup>8</sup>. Hauek peleginazio bidean kokatzen ziren, leku estrategikoak baitziren ikuspuntu erlijioso batetik eta baita ere ikuspuntu komertzialetik.

Flandesen kasuan, XI. mendearen bigarren erdialdean eman zen bere hirigune sistemaren sorkuntza. Garapen komertzial handia izan zuen, bere kokapen onuragarriari esker: Itsaso Baltikoa eta Iparraldeko itsasoak emandakori esker. Hauen artean, Ypres, Messines, Lille eta Brujas ditugu.

Ingalaterran berriz, beranduago eman zen hirigintzaren fenomenoak, XIII. mendean konkretuki. Bere interesak politikoak ziren, defentsiboak. Izugarritzko aberastasuna izan zuen, jada XIII. mende bukaerarako Ingalaterrak 120 hiri berri baitzituen<sup>9</sup>.

Italiak ere izugarritzko garrantzia izan zuen formakuntza honetan, hiri berrien tipologia egiteaz gain, bertako gobernu mota ere asmatu baitzituen. Batez ere, nazioaren iparraldean eta erdialdean sortu ziren hiri berriak; Po, Lonbardia eta Venetonia.

Frantzia, *bastida* izenarekin ezagutzen ziren eta hauen fundazioa XIII eta XV. bitartean eman zen. Existitzen ziren lekuetan asentatzen ziren; *castelnaux*, abadietan, *sauvetés* eta burgo berrietan. Hauen helburua eginkizun defentsiboa izatea izan zen<sup>10</sup>.

Gaur egun ezagutzen ditugun Europako hiri gehienak prozesu horren emaitza dira, bai guztiz berriak izan ziren hirien proiektuak, baita lehenagoko lekuen eraldaketak izan zirenak ere. Gertakari hau *Europako hedapen prozesua* bezala ezagutzen da, landa eta hiri munduan eragina izan zuena. XI. mendean jada, nekazal-

---

<sup>8</sup> Arízaga Bolumburu, B.: “El Paisaje Urbano en la Europa Medieval”. In *III Semana de Estudios Medievales*: Nájera: Universidad de Cantabria. 1988. 21 orr.

<sup>9</sup> Ibid., 23 orr.

<sup>10</sup> Ibid., 24 orr.

paisaian aldaketa ematen hasi zen Europan, hirigintza proiektuak emanez, lur hauek izendapenak hartuz, politiko eta militarrek<sup>11</sup>.

Gertakizun honen ondorioz, lehenago zegoen landa paisaia guztiz eraldatua suertatu zen; hirien sorrerarekin batera, bizitzeko lekua aldatu baitzen, antolamendu guztiz berri bat aurrera eramanez<sup>12</sup>. Honekin batera, aldaketa exodoa eman zen landa eremutik hirietara, jendeak bizi hobea izateko; babestuta egoteko eta bizi baldintza duinagoak izateko.

---

<sup>11</sup> Ibid., 20 orr.

<sup>12</sup> Quesada, M.F.L.: op.cit., 111 orr.



## **Behe Erdi Aroko Gipuzkoako hirigintza prozesua**

Gaztela-Leongo erreinuaren iparraldeko ertzean fundatutako herri eta hiriak, hiru aro barruan sortu ziren. Lehena, Leongo eta Gaztelako erresumetako azken aldian, Alfontso VII. aren heriotzaren (1157) eta Alfontso X. aren (1230) artean. Bigarren fasea, Alfontso X. erregearekin eman zen, berak aurrera eramandako hirigintza sustapen politika aktiboari esker. Azkenik, Alfontso XI. aren erregealdiaren eta Trastamarako lehen monarken garaiko udalerriekin eman zen aroa<sup>13</sup>. Batez ere, Alfontso X Jakitunarekin eman zen benetako hirigintza prozesua, non berak bultzatu zuen hiri eta herri berrien garapena.

Alfontso X Errege Jakitunaren ekimenari esker, Gipuzkoako eremuan 1251 urtetik 1284 urtera bitartean, hiribilduen sorrera eman zen, herri berriak sortuz, hots, Tolosa, Segura, Villafranca, Mondragon eta Bergara<sup>14</sup>. Hiribildu hauen artean, gehienak mendi txikien magalean eta ibaiaren ertzean kokatu ziren, modu estrategiko batean, erasoak egotekotan babestuak egoteko<sup>15</sup>.

Gipuzkoa, eremu hau, 1200. urtetik Gaztelako Koroaren jabetza izatera pasatu zen. Gipuzkoaren mugak garai horretan hauek ziren: alde batetik hegomendebaldean Gaztelako erreinukoa ere zenaren Araba, mendebaldera, Bizkaia, erreinu berakoa zena eta bestetik, hego-ekialdean Nafarroako erresuma zegoen. Gipuzkoa, unibertsitateak eta bailarak izeneko lurralde demarkazioetan zegoen antolatua<sup>16</sup>.

Gaztelako Erregea lurralde honen jaun izatera pasatuko da, eta honek nobleziaren interesak aurrera emateko, politika berri bat hasi zuen; hiribilduen

---

<sup>13</sup> Ruiz de la Peña, J.I.: op cit., 174 orr.

<sup>14</sup> García de Cortázar, J.A.: “Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en los siglos XIII a XV: de los valles a las provincias”. In *Revista Internacional de los estudios vascos*, 45. 2000. 203 orr.

<sup>15</sup> Arízaga Bolumburu, B.: *El nacimiento de las villas guipuzcoanas en los siglos XIII y XIV: morfología y funciones urbanas*. Donostia: Sociedad de ediciones y publicaciones. 1978. 35 orr.

<sup>16</sup> Arízaga Bolumburu, B.: *Urbanística...*, op. cit., 13 orr.

fundazioa<sup>17</sup>. Honen ondorioz, Gipuzkoako lurraldearen paisaia aldatzen joango da, hau da, haranak desagertzen joan ziren eta hauek ordezkatzuz herrixkak sortuko dira.

XIII. mendean aldaketak eman ziren Gipuzkoako irudiari dagokionez bestekiko, potentzia interesgarria bihurtu baitzen hainbat esparru aberatsetan: siderurgia, itsas garraioan eta merkataritzan. Gipuzkoari ospea eman zion produktua, burdinazko barra erdi-landuak izan ziren, metalurgia lanetan ezinbesteko materiala bihurtuz.

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, XIII. eta XV. mendeen artean, komertzializazioa handitzen joan zen, bertako burdinaren produkzioa zela eta, baita ere artilearen esportazioan oinarrituta zeuden<sup>18</sup>. Hiru lurralde hauetan, 69 hiribildu sustatuko dira; Gipuzkoan konkretuki. XIII. eta XIV. mendeen artean 25 izan zirelarik.

Hiru motatako hiribilduak zeuden Gipuzkoan eta bakoitzak bere ezaugarriaren arabera eta bere interesak jarraituz kokatzen ziren. Alde batetik, mugakoak; leku baten eta besten arteko mugan kokatuta daudenak dira. Tolosa, Villafranca, Segura dira batik bat hauek, eta Alfontso X-ren eskutik sortuak izan ziren<sup>19</sup>.

Bestetik, kostaldekoak, eta izenak esaten duen bezala kostalde osoan kokatzen direnak dira; zaharrena Donostia dugu. Hauek, istripu geografikoengatik egon zitezkeen itsasoaren erasoetatik babestutako lekuetan kokatuta zeuden, Hondarribia eta Zarautz kasuak adibidez. Baita ere, modu naturalean formatutako penintsuletan kokatutako hiribilduak, Getariaren kasuan bezalaxe<sup>20</sup>.

---

<sup>17</sup> Achúcarro Larrañaga, M.: “La tierra de Guipúzcoa y sus <<valles>>: su incorporación al reino de Castilla”. In *En la España Medieval*, 4. 1984. 45 orr.

<sup>18</sup> García de Cortázar, J.A.: op. cit., 197 orr.

<sup>19</sup> Arízaga Bolumburu, B.: *El nacimiento...*. op. cit., 32 orr.

<sup>20</sup> Aragón Ruano, A & Echeberria Ayllón, I.: *Síntesis de la Historia de Gipuzkoa*. Tolosa: “Miguel de Aranburu” Gipuzkoako Historialarien Elkarte. 1969. 206 orr.

Azken hauetatik, barrualdeko hiriak ditugu; kostaldearekin eta mugakoekin kontaktuan daudenak. Ibaien eta muinoen ondoan hartzen zuten beraien lekua, irisgarritasun handiago zutelako eta lur emankorrak zirelako.

Gipuzkoako hiri guzti hauek hirigintza sistema antzekoa jarraitu zuten. Harresi baten barruan antolatzen ziren, babesteaz gain pribilegioak zituzten (askatasuna, zerga eza, etab).

Eremu honetako hirigune askok suteak izan zituzten, eraikinen premiazko materiala egurra baitzen, beraz arriskua oso handia zen. Gainera, etxeak blokeetan eraikitzen ziren, denak pilatuta, beraz zerbait erretzen zen garaian, oso erraza zen su hori oso azkar hedatzea. Hala ere, kasu guztietan ez ziren abandonatuak izan, baizik eta leku horiek birmoldatu zituzten<sup>21</sup>.

---

<sup>21</sup> Arízaga Bolumburu, B.: *El nacimiento...*, op. cit., 336 orr.

## **Villafranca hiribilduaren hirigintza azterketa**

Ordizia, Goierri eskualdean kokatzen den herria dugu, Gipuzkoako hego-ekialdean. Usurbe mendiaren magalean aurkitzen da, terraza natural batean. Horrez gain, Oria ibaiak herria zeharkatzen du. Ezaugarri horiek ezaguturik, Erdi Aroan leku estrategikoa bihurtu zen hiribildua sortu ahal izateko, mendi magalean kokatuta egoteak babestuta egotea suposatu zuelako<sup>22</sup>. Bestetik, Oria ibaiak Ordizia zeharkatzea ere oso positiboa zen, lur emankorrak emango zituelako, beraz nekazaritzatik bizitzea lortu zuten herritarrek. Inguruko herri garrantzitsu batzuen artean, Beasain, Lazkao, Zaldibia eta Segura ditugu.

XIII. mendearen erdialdean hiribildua sortu zen, Villafranca izena hartu zuena, baina leku horretan hiribildua izan baino lehenago, *Ordizia* izeneko herrixka modukoa zegoen<sup>23</sup>. Bertan, jende dezente bizi izan zen, etxe isolatuetan edo garaian egongo ziren baserrietan. Herritar guzti hauek, San Bartolome elizaren inguruan elkartzen ziren soilik, ekintza erlijiosoak aurrera eramateko<sup>24</sup> (Ikus 1. irudia). Ondoren, Ordiziako jatorrizko herrixkan, Villafranca hiribildu historikoa sortu zen aipatutako San Bartolome elizaren inguruan, beste eremu askotan gertatu zen moduan.

### **1. irudia: San Bartolome ermita gaur egun**



---

<sup>22</sup> Arcelus, I.A., Cano, D. & Iraola, N.: *Gure hiribilduko historiaren laburpen bat. Ordizia-Villafranca (XIII-XIX)*. Ordiziako Udala: III. Victor Mendizabal Beka. 2018. 6 orr.

<sup>23</sup> Olaechea, J.: *Villafranca de Ordizia*. San Sebastián: Graficas Izarra, 13. 1970. 39 orr.

<sup>24</sup>Ibid., 11 orr.

Pablo Gorosabel historialariaren hitzetan, hiribildua 1256 sortu zen, San Bartolome elizaren inguruan. Honekin batera, Tolosa eta Segura herriak ere sortu ziren.

Horrela dio Gorosabelek: *“Según tradición, esta villa en su origen estuvo siruada á orillas del rio Oria donde la ermita de San Bartolomé; la cual se cree haber sido su primitiva parroquia. El nombre que entonces tenia era Ordicia. Aunque no he podido proporcionar documento comprobante de su fundación en el punto que ahora, hay antecedentes bastantes, que hacen creer que fue ordenada por el rey D. Alonso el Sábio en el año de 1256, al tiempo que la de Tolosa y Segura”*<sup>25</sup>.

Villafrancako fundazioa Gipuzkoako hirigintza prozesuaren hirugarren fasean eman zen, 1256 urtean hasi zena eta 1268 urtera arte iraun zuena; Segura, Tolosa, Mondragon eta Bergara herrien sorkuntza ere eman zen. Hirigintza plangintza hauen atzean, Alfontso X eta Santxo IV erregeak egon ziren, hauen helburua merkataritzaren garapena ematea zelarik<sup>26</sup>.

## **2.irudia: 1268ko ekainaren 30aren hiri-gutuna**



<sup>25</sup> Gorosabel, P.: “Cosas memorables de Guipúzcoa”. In *Diccionario Histórico geográfico-descriptivo de Guipúzcoa*, IV. 1862. 611 orr.

<sup>26</sup>Galdós Monfort, A.: *Villafrancatik Ordiziara, historiaz jositako bidea*. Ordizia: Eusko Ikaskuntzaren Ardurapeko Argitalpena: Ordiziako Udala. 2008. 94 orr.

1200. urtean, Gipuzkoa Gaztelaren mendean gelditu zen, eta garaiko erregeak hiribilduak sortzen hasi ziren leku estrategikoetan. Alfontso X.ak, Gaztelatik Frantziara zihoan Erret Bidea indartzeko nahiarekin, hiribildua muino batean kokatu zuen, Oria ibaiaren ezkerrean<sup>27</sup>. Etsaietatik eta uholdeetatik babestuta egotearekin batera, burdinolak eta errotak egoteko leku emankorra zen.

1256. urtean, Alfontso X Jakitunak, Gaztelako erregea garai horretan eta hirigintza prozesuan garrantzi handia izan zuenak, Villafranca sortzea agintzen du, Tolosa eta Segura herriekin batera, batik bat.

Ordizia hiribilduaren fundazioa, Behe Erdi Aroan emandako urbanizazio prozesuaren parte da, erregeen eskutik eman zena, lehendabizi errege nafarren eskutik, eta ondoren Gaztelakoek aurrera eramandakoa<sup>28</sup>.

Baina, nahiz eta urte horretan hiribildu honen sorkuntza agindu, 1268ko ekainaren 30ean Gaztelako eta Leongo Alfontso X erregeak sinatu zuen Sevillan hiribildu honen legezko jaiotza<sup>29</sup> (Ikus 2. irudia). Honela dio jatorrizko pergaminoak, Ordiziako Udal Artxiboan gordetzen dena: *“Por sabor que auemos e fazer una puebla en aquel logal que dizen Ordicia, a que nos ponemos nombre Villafranca, e por fazer bien e merçed a los pobladores que agora z son e serán daquí adelante, dámosles e otorgámosles el ffuero que han los de Bitoria. E mandamos e defendemos que ninguno non sea osado de ir contra este privilegio por crebantar lo ni por amenguarlo en ninguna cosa. E qualquier que lo fiziese abria nuestra yra e pecharnos ye en coto mil maravedis e a los pobladores del lugar sobre dicho o a quien su voz tobiese todo el daño, doblado. E por quanto esto sea fime e estable, mandamos sellar este privilegio con nuestro sello de plomo”*

---

<sup>27</sup> Arcelus, I.A., Cano, D. & Iraola, N.: op.cit., 8 orr.

<sup>28</sup> Truchuelo García, S.: “En aquel logar que dicen Ordicia...”: Aproximacion politico-social a la villa natal de Andrés de Urdaneta (siglos XIII-XVI)”. In *Andres de Urdaneta: un hombre moderno*. Ordiziako Udala: Susana Truchuelo García (Ed.). 2009. 94 orr.

<sup>29</sup> González Díez, E. & Martínez Díez, G.: *Colección de documentos medievales de las villas guipuzcoanas: 1200-1369*. Gipuzkoako Batzar Nagusia, 1. 1991. 43 orr.

Egoera hau eman baino lehenago, Ordizian jatorrizko biztanleria zegoen sakabanatuta, eta agiria sinatu zen momentutik aurrera, leku berri honen biztanleria merkataritzan askatasun zabala zuten, zerga gehienak ez zituzten ordaindu beharrik eta gainera ez zeuden kanpaina egitera behartuta, erregearen pertsona izan ezik<sup>30</sup>.

Ordizia hiribildu bat bihurtzeak eta bere kokapen estrategikoak, garaiko garrantzi politiko eta ekonomikoa ulertzea laguntzen gaitu. Nafarroako erresumarekin muga dagoen eremua da, eta horrez gain Gaztelaren lurak eta errepideak komunikatzeko leku aproposa zen, bai Gasteizera begira baita Gipuzkoako gainontzeko hiribilduarekin kontaktua izateko, bai barnekoak baita kostaldekoak ere<sup>31</sup>. Egoera estrategiko honek merkataritza-trukeen barnean garatzea erraztu zuen.

Behe Erdi Aroan zehar, Ordizia hiri-nukleoa izan zen eta horrek abantaila asko eman zizkion. Jurisdikzioko fundatzaileak eman zituen batzuk (esate baterako, bere alkatearen justizia administratzeko eskumena, komunitatearen beraren autogobernua izateko ahalmena, bere kontseilu ofizial propioak izendatzeko eskumenak, komertzio askatasuna, etab). Beste batzuk areagotu egin ziren Gaztelako monarkia ezberdinek emandako pribilegio berrien bidez, batik bat, zergaren ordainketa ez zen hain gogorra. Horrela, erregimen juridiko berezi eta oso onuragarria eman zitzaien herrian integratuta zeuden guztiei auzo loturak medio<sup>32</sup>. Horrek guztiak Ordiziara kolono berriak etortzea bultzatu zuen, bertako eta atzerritar merkatarien artean, herrian bizi zen giro pribilegiatu horretaz baliatzeko aukera izan zezaten.

Villafranca, garaiko hiribildu guztiak bezala, harresiz inguratuta zegoen, babesleku modukoa sortuz. Hiribildu hau, garaiko gehienak bezala, adibidez, Mondragon eta Hernani, obalo forma itxia zuen. Harresiak obalo hori inguratzen zuten eta bere baitan murrutxoak eta dorreak zeuden. Honen azken azterketa arkeologikoak dio, kareharriz eta errekarritz eginda egongo zela, mortero zuriz erantsita eta metro bat lodi

---

<sup>30</sup> Olaechea, J.: op. cit., 14 orr.

<sup>31</sup> Truchuelo García, S.: op. cit., 94 orr.

<sup>32</sup> Ibid., 96 orr.

izango zuela<sup>33</sup>. Dorre batzuetan, portalak edo atek zeuden, hiribilduari sarrera emanaz.

Murruak, abantaila asko suposatzen zituen Villafrancarako; batik bat, babesgarria etsaien aurka, muga fisikoa izateaz gain, bereizketa sinbolikotzat ere balio izan zuen, jada barruko biztanleak pribilegioak zituzten, landako jendearekiko.

Lau ziren Villafrancak zituen atek, baina hauetatik bat soilik balio zuen sartu eta irten egiteko (Ikus 3. irudia). Ate bakoitzak orientazio bat zuen, hiribildu osoa komunikaturik egon ahal izateko. Ekialdean *Frantziako Atea* kokatuta zegoen, ate nagusia zena. Mendebaldean *Gaztelako Atea*, beraz izen hauek ulertaraziko digute zein orientazio edo bide jarraitzen zuten beraien izenengatik. Bi ate hauek elkartzen zuen kalea, erdikoa zen, bide nagusia markatzen zuena, gaur egun *Kale Nagusia*. Hegoaldean *Retenaren edo Bakardadearen Atea* zegoen, Nafarrora joateko balio zuena. Azkenik, iparraldean *Garagartzako Atea* egongo zen, Urola ibaiaren ondoan zegoena.

### 3. irudia: Erdi Aroko Villafranca hiribilduaren forma urbanistikoa



<sup>33</sup> Urteaga Artigas, M.M., “Las murallas de las villas medievales de Gipuzkoa: nuevos registros arqueológicos: Azpeitia, Ordizia y Rentería”. In *Boletín Arkeolan* (12). 2004. 18-19 orr.



Ondorioz, hiru kale perpendikular zeuden, erdikoa zuzenagoa eta beste biak bere forma ixten zuten almendra itxura lortuz bere osotasunean<sup>34</sup>. Barruko beste bi kale perpendikularrak *Goiko Kalea* (iparraldean eta gaurko Goen Kalea) eta *Eliz Kalea* (hegoaldean eta gaurko Santa Maria Kalea).

Lehen aipatu dudan bezala, Villafranca oso leku estrategikoa zen etsaiengandik babesteko eta komunikabideentzat, horretarako ezinbestekoa da ere zubien presentzia. Hemen uste da bi egon zirela: batik, *Lazkaibarko zubia* (Lazkao eta Ataun lotzen zuen) eta bigarrena, *Alkarteko zubia* (Amundarain ibaia zeharkatzeko)<sup>35</sup>.

Harresiaren eta eraikinen arteko espazioa, pertsonen joan-etorrirako erabilia zen, hortaz, espazio publikoa zen. Eraikinak, hiru kale horien artean kokatzen ziren, hasieran bi edo hiru solairukoak izan ziren eta denboraren poderioz handitzen joan ziren. Lekua txikia zen eta guztiz aprobetxatzeko, bata bestearen ondoan egiten ziren, leiho txiki batzuekin, argitzeko eta hotzari aurre egiteko. Etxegintzan, gehienetan egurra erabiliko da, inguruko mendietatik ekarria<sup>36</sup>.

Beraz, Villafrancako etxe guztiek antzeko itxura izango zuten, etxebizitza estu eta sakonak. Beheko solairuan lantoki edo dendak egongo ziren; lehen solairuan egongelak edo logelak, eta bigarreanean biltegia.

#### **4. irudia: Villafrancako herriaren maketa, 1700. urteko datuekin egina**



<sup>34</sup> Arízaga Bolumburu, B.: *El nacimiento...*, op. cit. 43 orr.

<sup>35</sup> Urteaga Artigas, M.M.: op. cit. 18-19 orr.

<sup>36</sup> *Ibid.*, 45 orr.

Badakigu eliza bat zegoela gutxienez, gaur egun dagoenaren lekuan, XIII. mendearen bukaeran sortua izan zena. Baina denboraren poderioz gaur egungo *Andra Maria eliza* dago (Ikus 5. irudia). Hasierako eliza hori, *Eliz kalea*-ren mendebaldeko muturrean kokatuta dago, eta harresiaren parte izango ziren bere harriak. Erdi Aroan, elizen atariak eginkizun askotarako balio izan dute eta honen kasuan, 1399. urtera arte ere atarian udal batzarrak egin ziren. Hainbat gertakizunen ondorioz, ez daude arrasto asko garaiko elizarenak, baina bai txikiagoa izango zela eta dorre altua zegoela (babesteko etsaiengandik eta bere baitan erloju bat zuen)<sup>37</sup>. Eliza, hiribilduaren eraikin garrantzitsuena zen, erlijioaren ikuspuntutik, baina baita ere ikuspegi sozio-ekonomikotik.

#### 5.irudia: Eliz Kalea, gaur egungo Santa Maria kalea<sup>38</sup>



Aipatu dudan bezala, hiru kale zeuden eta almendra itxura duen leku honen erdian, plaza aurkitzen zen (Ikus 6. irudia). Leku oso garrantzitsu bat izango zen ere, bertan eginkizun anitzak egingo baitziren; jendea elkartu, merkatuak, biltzarrak, etab<sup>39</sup>.

<sup>37</sup> Olaechea, J.: op. cit., 30 orr.

<sup>38</sup>Erdi Aroko hirigintza morfologia errespetatzen du kale honek gaur egun, forma itxia jarraitzen du, almendra itxura lortuz. Kale honetan, Ordiziako etxe zaharrenetarikoa dago, Isasagatarren etxea XVI. mendekoa.

<sup>39</sup>Olaechea, J.: op. cit., 16 orr.

## 6. irudia: Plaza Nagusia estali gabe eta estalia izan zenean<sup>40</sup>



Gaur egungo Ordiziaren morfologia asko aldatu da hainbat gertakizunen ondorioz. Adibidez hauen artean, gerrak eta denboraren poderioz egon diren garapen urbanistikoak. Baina, gertakizun erabakigarria, 1511. urteko sutea izan zen, Ordizia suntsituz. Urte bat beranduago, 1512.an hiri-nukleoaren historiaren bigarren mugarri izan zen, Juana erreginak Errege Pribilegioa eman zuenean Ordiziari, merkataritza gune derrigorrezkoa izendatuz<sup>41</sup>. Pribilegio honi esker, azoka ospatzen hasi zen urte guztietako asteazken egunetan, gaur egun tradizio hori jarraitzen da.

Hala izanik, eraldaketa sakona jasan du Villafrancak, hala ere, oraindik Erdi Aroko tipologia du bere baitan hein handi batean. Nahiz eta eraikin guztiak aldatzen joan eta herria handituz, harresiaren bukaerarekin, almendra itxura izaten jarraitzen du Ordiziako Kasko Historikoak.

---

<sup>40</sup> Plaza Nagusia, hasiera batean estali gabe egon zen. XVI. mendearen hasieran, Juana erreginak hiribilduari asteazkeneko azoka egiteko baimena eman zion, zergarik gabe. Baina horrez gain, beste eginkizun anitzak izan ditu: herriko dantzak bertan egiten ziren, festetan zezanak bertan egoten ziren, biltzarrak ospatzeko, etab. Azkenean, gaur egungo estalkia Jose Gurruchaga arkitektoak egindako proiektua da, 1925ean egina.

<sup>41</sup> Arruabarrena Florez., M. & Peñalba Garmendia., S.: “Plan especial de Rehabilitación del Casco Histórico de Ordizia”. Ordiziako Udala: 2000. 11 orr.

## Segura hiribilduaren hirigintza azterketa

Segurako hiribildua oso adibide aparta da Gipuzkoan XIII. mendean emandako hirigintza prozesua ikusi ahal izateko, baina beste alde batetik, 1280. urte inguruan egondako sutearen ondorioz, hiribildua aldatzeaz gain, Hiri-gutuna desagertu zen, informazio erabakigarria galduz. Hala ere, nahiz eta ez izan hiri-gutun horren presentzia, baditugu beste testigantza batzuk informazio hori berresten dutenak.

Hiribildua egon aurretik, *Erraztiolatza* izeneko herrixka bat zegoela uste da San Andres ermitaren inguruan<sup>42</sup>. Honela dio, XVII. mendeko testigantza bat, Lope de Vega Itsastikoaren hitzekin: *“El asiento de ella a los principios fue en el sitio que ahora tiene la hermita de San Andrés, á donde permaneció hasta el año 1236, en la que se disminuyó por incendio: y deseando los naturales conservar la memoria de la población antigua, trasladaron al puesto que de presente tiene no muy lejos del que tenía antes, pero más apacible y eminente”*<sup>43</sup>.

Baina horrez gain badugu ere XIX. mendeko testigantza, Pablo Gorosabelen eskutik. Honela dio bere ikerketak: *“Se cree que la primera población de Segura estuvo donde se halla la ermita de San Andrés: la cual sin duda fue su iglesia parroquial. Disminuida por incendio, el rey Alfonso X conocido con el cognomento de sabio, mando en el año 1256 fundar una nueva villa para su servicio en el punto en que ahora se halla, como mas propia para ser edificado”*<sup>44</sup>.

Beraz argi dago ikerlari askoren usteetan, San Andres ermita hau Segurako lehenengo parrokia izango zela, bere jatorria 1236. urte inguruan datatzen dena (Ikus 7. irudia). Ondoren, 1374. urtean Kofradia sortu zen hemen, eskubide eta pribilegioak

---

<sup>42</sup> Villafrancaren azterketan ikusi dugun berdina gertatzen da Seguran. Alfontso X. errege Jakitunak hiribildua sortu baino lehenago, herrixka horretan modu organizatu gabeen bizi ziren, beti ermita baten inguruan, Ordiziaren kasuan San Bartolome ermita primitiboa zegoen.

<sup>43</sup> Martinez Itsastikoa, L.: *Compendio Historial de Guipúzcoa*. Bilbao: Amigos del Libro Vasco Argitaletxea, IV. 1626. 563 orr.

<sup>44</sup> Gorosabel, P.: op.cit. 495 orr.

babesteko; baina batez ere helburu erlijioengatik eta babes ekonomikoa izateko<sup>45</sup>. Kasu honetan, izaera erreibindikatiboa nabaria da, Segurako 115 bizilagunek sortu zuten 1374.an hiribilduaren jurisdikzioa babestu eta jauntxoaren boterearen esku hartzeak eragozteko.

### 7. irudia: San Andres ermita



Behe Erdi Aroko lehen mendeak, gipuzkoarrentzat, garai gatazkatatsuak izan ziren, eta baita berriak ere. Nafarroa Erreinuaren parte izatetik, Gaztelakoaren parte izatera pasatu ziren. Horrexegatik, Seguraren kokapena estrategikoa bilakatu zen. Batetik, Nafarroako Erreinuaren mugan zegoen eta bestetik, San Adriango Erret Bidea babesten zuen. Hau da, Gaztelatik Europako iparraldera joateko bertatik pasatzea derrigorrezkoa zen eta horren ondorioz, merkataritzako hiribildu garrantzitsuenetarako batean bilakatu zen Segura, batez ere XV. mendean<sup>46</sup>.

Beraz, aurrekariak atzean utziz eta hirigintza prozesuari hasiera emateko, Segura hiriaren azterketa egingo dugu. XIII. mendearen erdi inguruan, 1256. urtean Alfonso X. Jakintsuak eta Gaztelakoak, Gipuzkoako Lurraldean hiribildu berri bat sortu nahi zuen, leku estrategikoa baitzen. Horrela izan zen beraz Seguraren sorkuntza, Aizkorri mendizerraren magalean aurkitzen baitzen eta Oria ibaiaren ertzean, horrez gain komunikabideak izateko leku aparta zen Segurako Bideak, eta monarkak interes

---

<sup>45</sup> Sorazu Ugartemendi, E.: "Segurako Ermitak: Erlijiotasun herritarren adibide bat". In *Segura historian zehar*. Segurako Udala: 1999. 363 orr.

<sup>46</sup> Barrena Osoro, E.: "Segura: Hiribilduaren sorreratik eskualdeko hegemoniara". In *Segura historian zehar*. Segurako Udala: 1999. 115 orr.

handia zuen bere erreinua aurrera eramateko<sup>47</sup>. Bi ibilbide eskaintzen ditu aukeran; Frantziatik datorrena, Irun zeharkatu eta, puntu horretatik aurrera, 2 adarretan bereizten dena, bata kostaldekoa eta bestea barnealdekoa. Barnealdeko bideak Gipuzkoa osoa zeharkatzen du Erdi Aroko Errenteria, Hernani, Tolosa, Ordizia eta Segura hiribilduetan barrena eta, San Adriango tunela igarota, Araban sartzen da. Kostaldeko bidea ez bezala, barnealdekoa Europa eta Penintsula lotzeko bide nagusietako bat izan da erromatarraren garaiaz geroztik.

Hiri bat sortzen zen momentuan, Hiri-gutuna idazten zen, bertan muga fisiko, juridiko eta politikoak zeintzuk ziren azaltzen ziren; baina baita ere biztanleek zituzten pribilegioak eta betebeherrak<sup>48</sup>(Ikus 8. irudia).

#### **8. irudia: Pedro I.aren pribilegioa, 1351. urtekoa, Segurako jatorrizko eta erretako Hiri-Gutuna berresten du**



Honela, Goierri bailarak lehen aldiz ezagutuko du foru-barneko hirigune baten sorrera. Baina honek ez du esan nahi Gipuzkoan ez zegoenik lehenago hiribildurik, jada beste leku batzuetan, batez ere kostaldean antolamendu ekonomiko, sozial eta politikoko lekuak zeuden. Kasu ezagunena, Donostiarena dugu, 1200. urtekoa.

---

<sup>47</sup> Ibid., 116 orr.

<sup>48</sup> Urrutikoetxea Lizarraga, J.: “Seguran bizi: bizilagunak, familia eta etxea historian zehar. Aldaketak eta iraupenak.”. In *Segura historian zehar*. Segurako Udala: 1999. 180 orr.



Bestetik badakigu, 1256 irailaren 13an Tolosari forua eman zitzaiola, eta seguruena da Segurak ere urte horretan agiri bat jasotzea monarkaren eskutik. Baina, zoritxarrez, lehenago esan dugun bezala, hiribildua sortu eta gutxira sute bat egon zen eta hiri-gutuna suntsitu zen. Baina, Alfontso X erregearen ondorengo, IV.ak bai idatzi zituela hainbat testu eta bertan azaltzen du nola Alfontso X.ak bidaltzen duela hiribilduaren sorrera hasteko, sute bat egon zela XIII. Mende bukaeran Seguran eta azkenik, 1335.an berriro eman zela populazioa Seguran<sup>49</sup>.

Alfontso X.ren nahia hiribildu hau sortzerako garaian argia da: Gipuzkoako barnealdean, mendien artean gotorleku batzuk sortzea zen, bere lurraldeko lekuak komunikatzeko, eta baita ere Europatik gertu zeudelako. Leku hauek, nahiko “izkutatuta” zeuden, beraz ez ziren etsai handiak egongo, eta ibaiak lan-material printzipal bezala erabiltzeko aukera eman zutelako.

“Segura” izena jartzeak, konnotazio bat du, beste lekuetan gertatu zen bezala; adibidez, Agurainen eraikitako Salvatierra, edo Ordizian eraikitako Villafranca bezala. Segura izenak, bere izaera estrategiko eta babeslea nabarmentzen du.

### **9. irudia: Segura hiribilduaren forma urbanistikoa**



---

<sup>49</sup> Ibid., 117 orr.

Erdi Aroko hiri morfologiako 3 talde handien artean, Segura eredu triangeluarraren kasu adierazgarria da, hiru kale paralelo nagusi eta zeharkako kantonamendu txikiak komunikazioa errazteko (Ikus 9. irudia). Kokapen estrategikoa dela eta, muino batean garatzen da defentsako herrixka bezala. Ohikoena lau ate egotea zen, baina Seguraren kasuan harresiak bost ate ditu: *Gaztelako Atea*, *Zeraingo Atea* (Ikus 10. irudia), *Beheko Atea*, *Nafarroako Atea* eta *Oxiñako Atea*. Horietako bi Erret Bideari dagozkio; barnealdea eta kosta komunikaturik egoteko, eta baita Europarekin merkataritza komunikabideak izateko.

### 10. irudia: Zeraingo Atea




Erdi Aroko hiribildu guztiak bezala harresitua zegoen, defentsarako harresiak osagarri garrantzitsuenak izanik. Hiri-gutunetan adierazita dago nolakoak izan behar zuten babesteko itxitura horien ezaugarriak. Europa osoan, era guztietan harresiak eta itxiturak eraiki ziren; haien helburua lurraldea babestea eta garrantzia ematea zen.

Hasiera batean, etxeen altuera oso txikia zen. Bestetik patio antzekoa zegoen, animalientzat edo biztanle bakoitzak bere auto hornikuntzarako baratza jartzeko. Denborarekin geroz eta pisu gehiago egiten hasiko dira, demografia handituz doan heinean.



Etxeen tipologia aztertuko dugu orain (Ikus 11. irudia). Argi dago balore handiena fatxadak edo aurrealdeak duela. Haritz egurrezko egitura dauka, erdian poste eder bat eta taila geometrikoaz hornitutako bi mentsula eta animala mutur itxurekin dekoratutako habexka ugari ditu. Beheko solairuan, sartzeko bi ate daude: bata handia, gurdi eta animalientzako egina, eta bestea, askoz ere estuagoa, egurrez tailatukoa arku konopial bitxi batez osatua, jendeak erabilia<sup>50</sup>. Bigarren solairuan, nabarmentzeko dira, toba harri zabal arinezko pareta eta bestetik bi bao lerro. Behekoak gaur egun leiho arruntak dituzte, baina aintzinean egurrezko itxiturekin estaliak egongo ziren egur bakar bat mantentzen da, eskuinetik bigarrena. Bigarren lerroan, neguko leihoak txikiak deiturikoak daude, zuzeneko haize lasterrak ekiditeko buru gainetik gora ezarrita daude eta pergamino edo oihal ezkoztatuekin estaltzen zituzten. Erdi aroan ez zen ohikoa beiraren erabilpena leihoetarako, luxuzko artikulua baitzen, beraz XVII. mendera arte ez da emango honen erabilpenik.

**11. irudia: Segurako Ardizarra etxea, XVI. mendekoa. Horrelako itxura izango zituzten hiribilduko etxek gutxi gora behera.**



---

<sup>50</sup> Ibid., 119 orr.



Seguran, beste hiribildu askotan bezala, garaiko etxebizitzak zurezkoak zirenez, suteen arriskua ohi zen Erdi Aroan, eta Seguran zoritxarrez hiru aldiz gertatu zen. Hiribildua sortu eta gutxira gertatutakoa, eta beste bi XV. mendean (1422an eta 1491an, alegia). Beste alde batetik, garbitasun eskasa egoteak izurriteak suertatuko ditu hirian: 1413 eta 1418 urteetan<sup>51</sup>. Gaitza horiek kontuan harturik, XV. mendetik aurrera material berriekin eraikitzen hasiko dira, beraz emankorragoak izango dira etxe-bizitzak (Ikus 12. irudia).

## 12. irudia: Segurako hiribildua XVII. mendearen bukaeran<sup>52</sup>



<sup>51</sup>Urrutikoetxea Lizarraga, J.: “Seguran bizi: bizilagunak, familia eta etxea historian zehar. Aldaketak eta iraupenak.”. In *Segura historian zehar*. Segurako Udala: 1999. 122 orr.

<sup>52</sup>Nahiz eta suteak eta beste hainbat aldaketa egon Segurako hiribilduan, maketa honetan ikusten da nola Segurak bere hiribilduaren forma errespetatzen jarraitu zuen hainbat mende pasa eta gero.

XIV. eta XV. mendeko hiriko etxebizitza gehienak biztanlek berek eraiki ohi zituzten, arotzek lagundurik. Penintsularen iparraldean eraikitzeko gehien erabiltzen zen materiala egurra zen (haritza, pagoa, sahatsa edo lizarra), gainera Segurako eremua basoz gainezka zegoen, beraz material hauen ustiapena erreza zen.

Seguran, beste hiribilduetan bezala, kale estuak zeuden leku batetik bestera komunikatzen zutenak. Hiribildu honen adibide interesgarria *karkaba* dugu, non hauek bi etxe ilararen atzeko fatxadak bereizteko espazioak ziren (Ikus 13. irudia).

### 13. irudia: Segurako *karkaba* gaur egun




Azkenik, Segurako hiribilduaren jatorrizko parrokia San Andres izan zen, baina XIV. mendean estilo gotikoko Jasokundeko Andre Maria eliza altxatu zen, eta badakigu harresiaren parte izango zela, herriaren albo batean eraikita. Bere baitan dorre bat zuen, herria etsaiengatik babesteko, gotorleku bateko dorre gisara<sup>53</sup> (Ikus 14. irudia). Baina XVI. mendean, hedapen lanak hasi ziren, garaiko *euskal-gotiko* estiloa nabarmenduz (elementu gotiko eta errenazentistekin). *Hallenkirche* motakoa da, hiru

---

<sup>53</sup>Irigoyen, D.: “Ermitas e iglesias de Guipúzcoa”. In *Anuario de Eusko-Folklóre*, 14. 1934. 12 orr.

nabeekin, altuera berdinarekin. Baina ondoren, honen gainean, barroko estiloko eliza proiektua egin zen, bere itxura guztiz aldatuz.

**14. irudia: Jasokundearen Andre Maria eliza**



## **Ondorioak**

Villafranca eta Segurako hirigintza prozesuen azterketa egin ondoren, hainbat ondorio argi eta garbi ikusi dira. Orokorrean, bi hiribildu hauek puntu asko dituzte komunean, baina baita ere ezberdintasunak ohikoa den bezala.

Bi hauen azterketan ikusi dugun bezala, bien hirigintza proiektua egin baino lehenago XIII. mendean, bi kasuetan ermita baten inguruan biztanleria ordenatu gabe bizi zen eta bertan elkartzen ziren errito erlijiosoak egiteko. Herrixka modukoak ziren, baina ordenarik gabe eta isolatuak. Villafrancaren kasuan San Bartolome ermita eta Segurakoan berriz, San Andres ermita. Gainera bi kasuetan, ermitak oraindik mantentzen dira, eta oso egoera onean zorionez.

Bi hiribildu hauek, orain aipatu dudana bezala, herrixketan antolatzen ziren erregeak hiribilduaren agiria eman baino lehenago. Herrixka hauek eta hiribilduak ez dute izen berdina hartuko. Monarkiak leku harresitu hauei izenak ematen zizkieten eta batzuetan esanahi jakin batekin. Villafrancaren kasuan, bi hitzez osaturik dago: “Villa” eta “franca”; esan nahi duena da, leku hau benetakoa zela, zintzoa. Seguraren kasuan, izenak dion moduan, leku segurua zen, segurtasuna bermatzen zen hiribildu horretan. Baina, hasiera batean Villafrancak Ordizia izena zuen, gaur egun ere izen hori du herriak, 1928.an eman zitzaion berriro ere. Seguraren kasuan, ez da aldatu hiribilduak hartutako izena, Segura izaten jarraitzen duelako, baina hasieran, leku isolatu horrek Erraztiolatza izena zuen.

Hiribilduak sortzearen ideia Europatik dator ikusi dugun bezala, hainbat berrikuntza eta arrazoi ezberdinengatik. Villafranca eta Seguraren kasuan, Gaztelako erregeei esker lortu zuten hiri-gutuna eta horrek suposatutako pribilegio eta babesak. Alfontso X. Jakituna, Gaztelako erregea izan zena, izan zen hirigintza prozesua aurrera eramanez, eta honi esker ditugu oraindik garaian aurrera eramandako proiektuak.

Alfontso X.ak leku hauek hautatzerako orduan, leku estrategikoak bilatzen zituen, gauza onuragarriak izango zituenak. Bi hiribildu hauen kasuan, ezaugarri morfologiko antzekoak dituzte, oso positiboak zirenak hiribildu bat sortzerako orduan. Biak, Goierriko morfologian hain ohikoa den bezala, muinoetan antolatzen dira, beraz leku estrategikoak ziren etsaiengandik babestuta egoteko. Beste alde batetik, ibaia dute bere baitan, beraz garbitasunerako, edateko, nekazaritzarako, abeltzaintzarako, lan-makinak martxan izateko, etab oso garrantzitsua zen.

Morfologikoki beraz, nahiko antzekoak dira, baina hiribildua egiterako momentuan, bakoitzak forma bat hartzen du. Villafrancaren kasuan, obalo forma eta Seguran berriz, triangelu forma; beraz antolakuntzan hainbat desberdintasunak izango dituzte. Alfontso X. Jakitunak egindako agiri edo hiri-gutunetan ez da azaltzen zergatik hiribildu batzuek forma bat zuten eta beste batzuek beste batzuk; baina seguruena bere lurraren egoerarengatik izango zela pentsatzen da. Garrantzitsua da ere, ateen garrantzia azpimarratzea, hauek izango baitziren hiri baten komunikazio tresna. Villafrancaren kasuan, 4 ate zituen, eta Segurak berriz 5 zituen, beraz batek bat gutxiago izatea, morfologiaren ondorioa da.

Zoritxarrez biek suteak pairatu dituzte, eta gainera behin baino gehiagoetan, baina horrek ez du esan nahi bere jatorrizko itxura aldatu dutenik. Beraz, ondorioztatu dezakegu XIII. eta XIV. mende bitartean emandako hirigintza prozesuko hiriguneak, nahiz eta aldakuntza asko izan mendeen poderioz, planoei begira denek errespetatu dute garaiko forma, Aro Modernoa eta Aro Garaikidean emandako aldaketak kontuan hartuz. (Ikus 15. irudia).



### 15. irudia: Segura eta Ordizia gaur egun



Berrikuntzak hasi zirenean, hiribildu gehienak bezala, XIX. mendean harresiak botatzen hasiko dira, ez baitziren beharrezkoak (Ikus 16. irudia). Orain segurtasuna bermatzeko ez da beharrezkoa elementu hauen presentzia. Horren ondorioz, herriak handituz joan ziren, auzo berriak sortuz. Beraz, hauek kendu dituzte beraien mugak handitu nahian, eta eraikinak eta garaiko elementuak aldatzen joan dira, baina Erdi Aroko pentsamendu arrazional hori jarraitzen du gure gaur egungo herri eta hirietan. Gainera, Kasko Historikoaren etxe-bizitza eta beste hainbat eraikin asko aldatu dira eta homogeneotasun hori galtzen joan dira, baina aldi berean, etxe-blokeen eta kaleen sistema berdina jarraitzen du.

### 16. irudia: Gaur egungo harresiaren aztarna Etxezarreta kalean (Ordizia)



Argi dago, gaur egungo bi herriak ikusiz, bakoitzaren garapena ezberdina izan dela. Ordiziaren kasuan, trenaren etorrera asko aldatu du hiribildua. CAF fabrikaren

etorrerak, trenaren presentzia izan zuen Ordizian, beraz askoz komunikabide handiagoak izango ditu. Gainera Ordizian, fabrika gehiago sortu ziren, batik bat, Almazor Picaza eta Cia fabrikak. Beraz, jende asko joango da Ordiziara lan egitera, horretarako auzo berriak osatu ziren langile-auzoak moduan. Seguran berriz trenaren presentzia ez da iritsi, azkoz “puruagoa” dugu herri hau.

Beraz esan dezakegu, gaur egun Segura eta Ordizia Erdi Aroko morfologia izaten jarraitzen dutela, nahiz eta zortzi mende pasa izana jatorrizko hiribilduaren proiektutik gaur egunera arte. Horrez gain, gaur egun ere bi herri hauetan, urtean behin Erdi Aroko azoka egiten jarraitzen da, beraz aukera aparta da iraganera eramateko gure buruak.



## **Bibliografía**

- Achúcarro Larrañaga, M.: “La tierra de Guipúzcoa y sus <<valles>>: su incorporación al reino de Castilla”. In *En la España Medieval*, 4. 1984. 13-46 orr.
- Aragón Ruano, A & Echeberria Ayllón, I.: *Síntesis de la Historia de Gipuzkoa*. Tolosa: “Miguel de Aranburu” Gipuzkoako Historialarien Elkarte. 1969.
- Arcelus, I.A., Cano, D. & Iraola, N.: *Gure hiribilduko historiaren laburpen bat. Ordizia-Villafranca (XIII-XIX)*. Ordiziako Udala: III. Victor Mendizabal Beka. 2018.
- Arruabarrena Florez, M. & Peñalba Garmendia, S.: “Plan especial de Rehabilitación del Casco Histórico de Ordizia”. Ordiziako Udala: 2000. 1-63 orr.
- Arízaga Bolumburu, B.: *El nacimiento de las villas guipuzcoanas en los siglos XIII y XIV: morfología y funciones urbanas*. Donostia: Sociedad de ediciones y publicaciones. 1978.
- Arízaga Bolumburu, B.: “El Paisaje Urbano en la Europa Medieval”. In *III Semana de Estudios Medievales*: Nájera: Universidad de Cantabria. 1988. 11-26 orr.
- Arízaga Bolumburu, B.: *Urbanística Medieval (Guipúzcoa)*. Donostia: Kriselu, 1990.
- Barrena Osoro, E.: “Segura: Hiribilduaren sorreratik eskualdeko hegemoniara”. In *Segura historian zehar*. Segurako Udala: 1999. 115-134 orr.
- Corral Lafuente, J.: “Significado y símbolo de la ciudad medieval: elementos semióticos en el mundo urbano de Europa occidental (1350-1550)”. In *Revista de Historia Jerónimo Zurita*, 56. 1987. 131-160 orr.
- Galdós Monfort, A.: *Villafrancatik Ordiziara, historiaz jositako bidea*. Ordizia: Eusko Ikaskuntzaren Ardurapeko Argitalpena: Ordiziako Udala. 2008.
- García de Cortázar, J.A.: “Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en los siglos XIII a XV: de los valles a las provincias”. In *Revista Internacional de los estudios vascos*, 45. 2000. 197-234 orr.
- Garmendia Larrea, F. J.: “Estudio urbano de Villafranca de Ordizia”. In *Lurralde. Investigación y Espacio*. 1982. 183-216 orr.
- González Díez. E. & Martínez Díez. G.: *Colección de documentos medievales de las villas guipuzcoanas: 1200-1369*. Gipuzkoako Batzar Nagusia, 1. 1991.

- Gorosabel, P.: “Cosas memorables de Guipúzcoa”. In *Diccionario Histórico geográfico-descriptivo de Guipúzcoa, IV*. 1862. 609-621 orr.
- Irigoyen, D.: “Ermitas e iglesias de Guipúzcoa”. In *Anuario de Eusko-Folklóre, 14*. 1934. 9-92 orr.
- Martinez Itsastikoa, L.: *Compendio Historial de Guipúzcoa*. Bilbao: Amigos del Libro Vasco Argitaletxea, IV. 1626.
- Olaechea, J.: *Villafranca de Ordizia*. San Sebastian: Graficas Izarra, 13. 1970
- Quesada, M.F.L.: “La vivienda: espacio público y espacio privado en el paisaje urbano medieval”. In *La vida cotidiana en la Edad Media: XVIII Semana de estudios Medievales*. Nájera: Instituto de Estudios Riojanos. 1997. 111-128 orr.
- Ruiz de la Peña, J.I.: “El desarrollo urbano de la periferia norteña castellano-leonesa en la Edad Media (siglos XII-XIV)”. In *Anuario de estudios medievales, 19*. 1989.169-180 orr.
- Sorazu Ugartemendi, E.: “Segurako Ermitak: Erljiotasun herritarren adibide bat”. In *Segura historian zehar*. Segurako Udala: 1999. 353-360 orr.
- Truchuelo García, S.: “En aquel lugar que dicen Ordicia...”: Aproximacion politico-social a la villa natal de Andrés de Urdaneta (siglos XIII-XVI)”. In *Andres de Urdaneta: un hombre moderno*. Ordiziako Udala: Susana Truchuelo García (Ed.). 2009. 93-119 orr.
- Urrutikoetxea Lizarraga, J.: “Seguran bizi: bizilagunak, familia eta etxea historian zehar. Aldaketak eta iraupenak.”. In *Segura historian zehar*. Segurako Udala: 1999. 177-204 orr.
- Urteaga Artigas, M.M., “Las murallas de las villas medievales de Gipuzkoa: nuevos registros arqueológicos: Azpeitia, Ordizia y Rentería”. In *Boletin Arkeolan (12)*. 2004. 18-19 orr.